

Hedabideen biharko giltzarrien bila, foroa irekiko dute Gasteizen

Internet aroan jarraitu beharreko bidez gogoeta egingo da datorren astean, EKTk antolatuta

Jon Rejado Gasteiz

Norantzo jo behar duten hedabideek etorkizunean. Zer toki izango duten. Noiz gertatutako den komunikabide enpresen behin betiko eredu aldaketa. Zergatik gertatuko den. Aldaketari nola egingo dioten aurre hedabideek. Kazetaritzaren muintzat hartzen diren auzi horiek komunikabideei buruz hausnarketa egiteko erabiliko dira azaroaren 23tik 26ra. *Hedabideak etorkizunean, biharko komunikabideak eta Internet* jardunaldiak egingo dira, Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoan.

EKT Euskarazko Komunikazio

Taldeak antolatuko ditu jardunaldi horiek, Arabako Foru Aldundiaren babesarekin, eta bertan planteatuko den eztabaidari eustea «derrigorrezkoa» dela nabarmendu zuen atzo, aurkezpenean, Lorena Lopez de Lacalle Arabako Euskara eta Kultura diputatuak. Alde batetik, Internet alor guztietan nagusitzen ari den garaian, hedabideek duten zeregina eztabaidatzeko beharra dagoela gogorarazi zuen.

Horrez gain, eztabaida Euskal Herriaren ikuspuntura hedatzearen garrantzia nabarmendu zuen Lopez de Lacallek, hedabideek euskararen gizarte erabileran duen garrantzia aintzat hartuta. «Hedabideen alorrean hizkuntza garatu ahal izateko estrategiak egitea oso garrantzitsua da».

Zalantza betetako geroa

Hedabideen alorrean etorkizunean gerta daitekeena aurreratzea zaila dela nabarmendu zuen Mar-



Martxelo Otamendi, Lorena Lopez de La Calle eta Joanmari Larrarte, atzo, aurkezpenean. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

txelo Otamendi BERRIAko zuzendariak: «Orain arteko hedabideen eredu erortzen ari zaigu; hedabideen negozioa bukatzen ari da, eta aztertu behar da geldituko den testuinguru berria». Hala, euskarazko hedabideak sortu zirenean nora begiratu bazegoela gogorarazi du. Telebistan, irratiari eta prentsan lanildoak finkatzerakoan eredutzat hartzeko moduko enpresak zeuden, eta bidean aurrera egiteko lagungarria izan zen hori. Ordea, gaur egun enpresa horien negozio eredu desagertzen ari da, eta geroan



Hedabideen alorrean hizkuntza garatu ahal izateko estrategiak egitea oso garrantzitsua da»

LORENA LOPEZ DE LACALLE
Arabako Euskara eta Kultura diputatua

«Hedabideen negozioa bukatzen ari da, eta aztertu behar da testuinguru berria»

MARTXELO OTAMENDI
BERRIAko zuzendaria

egon daitekeen testuinguruan ez dago eredu argirik.

Internet aroan irratiak, prentsak eta telebistak izan beharko luketen tokiari buruz eztabaidatuko da EKTk antolatutako jardunaldietan. World Kafea ereduaren bitartez, izena ematen duten pertsonen horren inguruan eztabaidatzeko aukera izango dute. Horrez gain, hainbat hitzaldi eta mahai-inguru izango dira. Jardunaldiei bukaera emateko Hamaika telebistak Arabarako duen egitasmoa aurkeztuko dute Artiumen.

JARDUNALDIAK

Hedabideak etorkizunean, biharko komunikabideak eta internet

EGUNAK: azaroak 23, 24, 25 eta 26 • LEKUA: Artium - Gasteiz

EGITARAU

Azaroak 23, astelehena

19:30ean

• Sarrera

Martxelo Otamendi (BERRIAKO ZUZENDARIA)

19:45ean

• Hitzaldia

Periodismo: un oficio que se ha hecho grande sin hacerse mayor

Mariano Ferrer (KAZETARIA)

Azaroak 24, asteartea

17:00etan

• World kafea

Irratigintza internet aroan

19:30ean

• Mahai-ingurua

Irratigintzaren geroa

Jose Luis Aizpuru (EUSKAL IRRATIAK)

Mikel Bujanda (EUSKALERRIA IRRATIA)

Xabier Monasterio (BILBO HIRIA IRRATIA)

Ismael Diaz de Mendibil (MODERATZAILEA)

Azaroak 25, asteazkena

17:00etan

• World kafea

Prentsa idatzia internet aroan

19:30ean

• Sarrera

Joanmari Larrarte (EKTko KONTSEILARI ORDEZKARIA)

19:45ean

• Hitzaldia

El futuro de los medios de comunicación

Jose Maria Moreno (WAN-IFRA IBERICA)

Azaroak 26, osteguna

17:00etan

• World kafea

Telebista internet aroan

19:30ean

• Hamaika telebistaren egitasmoa

Arabarako aurkezpena

Iñaki Altzaga (HAMAIIKAKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO LEHENDAKARIA)

Iñaki Uribe (HAMAIIKAKO ZUZENDARI NAGUSIA)

Aldi bereko itzulpen zerbitzua egongo da.

Sarrera irekia.

World Kafean parte hartzeko eman izena azaroaren 20a baino lehen komunika@berria.info helbidean edo 635 759 473 telefonoan.

Antolatzailea:



Babeslea:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net